

«Arloa»

1

2018/05/22an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 22/05/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zibia Atxaga  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko maiatzaren 22a, arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Josu Ezkurdia.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 22 de mayo de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Josu Ezkurdia.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA4A67L>

**2018/05/22**  
**Ohiko Osoko Bilkura**  
Pleno ordinario

2018-04-24an egindako osoko bilkuraren akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2018ko maiatzaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 9/2018 kreditu aldaketa espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

## **3.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENDUAREN ETA ESKORIATZAKO UDALAREN ARTEAN ELKARRI INFORMAZIOA EMATEKO SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN D-3 ERANSKINAREN II. BERTSIOA ONARTZEA.**

2014ko maiatzaren 15ean, Udal honek lankidetza hitzarmena sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin elkarri informazioa lagatzeko.

Sinatutako hitzarmenak hainbat eranskin ditu, horien artean, D-3 eranskina: Gizarte zerbitzuen arloan dagozkion zereginak betetzeko zerga informazioa ematea Ogasun eta Finantza Departamentuak.

Zenbait udalen ekimenez, Ogasun eta Finantza Departamentuak D-3 eranskina aldatzea proposatzen du alderdi hauetan:

- D-3 eranskinaren informazioa ez bereiztea bi zatitan.
- Informazioa zabaltzea gaur egungo D-eranskinean agertzen ez diren datu ekonomikoekin, datu horiek erabakigarriak baitira jendearen ahalmen ekonomikoa zehazteko.

Proposamena ikusita eta baloratuta, eta Ogasun eta Finantza batzorde informatzaileak egindako diktamenarekin bat etorri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengo.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean elkarri informazioa emateko sinatutako lankidetza hitzarmenaren eranskinetako "gizarte zerbituetarako zerga informazioa" D-3 eranskinaren II. bertsioa formalizatzea.

## **4.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA.**

Udalbatzarrak, 2017ko abenduaren 18ean egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa egunetzeko erabakia hartu zuen plan hori 2018ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeo.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspen bat aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa baten eremu objektiboa zabaltzeko. Aldaketa hori honako hau da:

**ONDORENGO PROGRAMAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:**

**B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Kirol Elkartea**

Arrazoiak justifikatuta eta horiekin ados egonda, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Indarrean dagoen 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoaren ONDORENGO PROGRAMAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:

**B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Kirol Elkartea**

HARTZAILEA: Eskoriatza Kirol Elkartea.

HELBURUA: Eskoriatzako Kirol Elkarteari diruz laguntza kirol federatua sustatzeko ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Kirola egitea sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRU LAGUNTZA MOTA: izenduna

2018ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 26.180 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.20.01 partida

**5.- HOBARIA EGITEKO JOSE ARANA PATRONATUAK EGINDAKO ESKAERA.**

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 136,63 € eta 2.203,74 € hurrenez hurren.

EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurrekitako hobaria egiteko eskatu da 2018ko maiatzaren 4an.

Kontuan izanik egindako obrek interes handia dutela Udalarentzat, beharrezkoak eta nahitaezkoak direlako eraikina hirugarren adinekoen egoitzarako erabiltzen jarraitu ahal izateko, Patronatuko Juntako kide diren zinegotziak abstentuta eta bertaratutako gainerako zinegotziek

alde bozkatuta (Maite Zubia, Aintzane Agiriano, Edorta Barandiaran eta Nestor Arana), Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** GIZARTE INTERESEKOTZAT JOTZEA Jose Arana zaharren egoitzako lehenengo solairuan (3. fasea) 2017ko azaroaren 27ko Alkate erabakiz baimendutako zaharberritze obrak; eta ondorioz, EIOZetik sortutako kuotaren %95eko hobaria ematea.

## **6.- SAN PEDROKO 9. ZENBAKIKO ETXEJABEEK EGINDAKO HOBARI ESKAERA.**

Eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean % 90eko hobaria aitortzeko eskaera egin dute San Pedro 9.eko jabekideek 2018ko maiatzaren 3an.

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga arautzen duen udal ordenantzan ondorengo hobaria jasotzen da:

*5.3.3.5. Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzakin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordez berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrieta jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordez eraiki).*

*Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:*

*Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.*

*Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.*

*Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.*

*Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoentzakoan antzekoa izan beharko da.*

*Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikienak izango dira kalteak.*

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, jarritako igogailuak ordenantzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** San Pedro 9ko jabekideei % 90eko hobaria ematea eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean.

## **7.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2018KO LEHENENGO HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikulan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

- 1.- “*Justifikatzeko*” *igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostenetan. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako 1/2018 kutxa aurrerakina).*
  
- 2.- “*Justifikatzeko*” *igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostenetan. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako 2/2018 kutxa aurrerakina).*

*Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.*

## **8.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2018ko lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## **9.- HIE 9 “SANTA MARINA” EREMUA KUDEATZEKO ETA EXEKUTATZEKO ESKORIATZAKO UDALAREN ETA VISESAREN ARTEAN SINATUTAKO KONTRATUA ADOSTASUNEZ SUNTSITZEA.**

Eskoriatzako Udalak eta “VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.-EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A” sozietate publikoak kontratu administratiboa sinatu zuten 2006ko urtarrilaren 18an, kontratuaren helburua izanik HIE 9 “Santa Marinako” udal aprobetxamendu urbanistikoak besterentzea prezio tasatuko 28 etxebizitza eraikitzea eta eremu horren urbanizazioa kudeatu eta exekutatzea; kudeaketa 1.203.658 €-tan eta exekuzioa 197.050,00 €-tan (BEZ gabe).

Udalbatzarrak 2011ko abenduaren 27an horrela erabakita, kontratuaren egindako aldaketa bat sinatu zen 2011ko abenduaren 29an. Hori horrela, kontratuari honako aldaketa hau egin zitzzion:

### **Hitzartutako aldaketak**

*Lehenengoa.- 2006ko urtarrilaren 18an sinatutako kontratuko laugarren baldintza aldatzea.*

*2006ko urtarrilaren 18an sinatutako kontratuko laugarren baldintza aldatzen da honi dagokionez: gainerako kopuruaren bigarren eta azken ordainketa esleipendunak eskainitako kopurua osorik ordaindu arte. Baldintza horrela gelditzen da:*

- *Gainerako kopuruaren (GK) ( $1.204.658 - 60.000 = 1.143.658$  euro) bigarren eta azken ordainketa esleipendunak eskainitako kopurua osorik ordaindu arte. Ordainketa modu honetara egingo da:*

*.- LEHENENGO ORDAINKETA: gainerako kopuru horren (GK) zati proportzionala, etxebizitza kopuru osotik (32) etxebizitzetik 2011n (2011/12/31ra arte, hori barne) eskrituratutako etxebizitza tasatuen portzentajea oinarri hartuta. Ordainketa egiteko epea 2011ko abenduaren 30a izango da.*

*.-Hortik gainerakoa, 2011/12/31n ordaintzeke dagoen kopurua (OK) urtero eskrituratutako etxebizitzen arabera, ondorengo gutxiengoekin eta epe mugakin:*

*a) BIGARREN EPEA: gutxienez, 2011/12/31n ordaintzeke gelditutako kopuruaren (OK) heren bat, edo ateratzen den kopurua handiagoa balitz, 2012. urtean eskrituratutako etxebizitzen araberako zati proportzionala (2012an eskrituratutako etxebizitzak x GK/32). Ordainketa egiteko epea 2012/12/30a izango da.*

*b) HIRUGARREN EPEA: gutxienez, 2012/12/31n ordaintzeke gelditutako kopuruaren % 50a, edo ateratzen den kopurua handiagoa balitz, 2013. urtean eskrituratutako etxebizitzen araberako zati proportzionala (2013an eskrituratutako etxebizitzak x GK/32).*

*c) LAUGARREN EPEA: oraindik ere ordaintzeke gelditu daitekeen kopuru osoa. Ordainketa egiteko epea 2014/12/30a izango da.*

*Horretarako, aipatutako ordainketak esandako epeetan egindakoan Eskoriatzako Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen du VISESAK.*

*Bigarrena.- HIE 9 “SANTA MARINA” eremuan egiteke dagoen urbanizazio jarduera kudeatzeko eta administratzeko eman beharreko laguntza teknikoari buruz.*

*Azalpen-zatian aipatutako arrazoik direla-eta, HIE 9 “Santa Marinan” egiteke dagoen urbanizazio jarduera kudeatzeko eta administratzeko eman beharreko laguntza teknikoa emateko 2006ko urtarrilaren 18an sinatutako kontratuaren seigarren, zortzigarren eta bederatzigarren baldintzak, eremu horretako hirugarren urbanizazio fasea kudeatzeko eta exekutatzeari buruzkoak, Eskoriatzako udalak egindako programaren arabera exekutatuko dira.*

*Hirugarrena.- 2006ko urtarrilaren 18an sinatutako kontratuko hamaikagarren baldintza aldatzea.*

*2006ko urtarrilaren 18an sinatutako kontratuaren hamaikagarren baldintza aldatzen da laguntza teknikoa emateko kontratuaren prezioaren azken ordainketari dagokionez (45.715,60 €). Baldintza horrela gelditzen da:*

- Azken ordainketa: esleipen prezioaren % 20a (45.715,60 €) gehi laguntza teknikoaren esleipen prezioaren kopuru osoa ordaintzeko gelditzen diren gainerako kopuruak. **Laguntza teknikoagatik ordaintzeke gelditzen den zatia proportzionalki ordainduko da, obra egiteko falta diren lanak egin ahala.** Obra horien nondik norakoak behin betiko onartutako urbanizazio projektuan jasotakoak izango dira. Behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2003-04-15ean.

*Laugarrena.- 2006ko urtarrilaren 18an sinatutako kontratuaren gainontzeko edukia bere horretan mantentzea.*

Aprobetxamendu urbanistikoak besterentzeari dagokionez, alde biek bete dituzte bakoitzak hartutako betebeharrok eta amaitutzat jo da kontratuaren zati hori.

Urbanizazioa obren kudeatu eta exekuzioari dagokienez, eremuaren urbanizazio obrak erabat amaitzeko atzerapena gertatzen ari da kontratua sinatu duten alde bietako bateri ere egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik. Arrazoik hainbat dira. Horietako bat, etxeak eraikitzeak izan ditzakeen eraginak egindako urbanizazioan, sustatzaileentzat gastuak handitzea ekarriko lukeena. Beste arrazoietako bat da azpilurzatietan, zatikatuta, etxebizitzak eraiki ahal izateko jabeen artean adostasunik ez izatetik sortutako blokeoa aho batez hartutako erabakiak eskatzen dituzten baldintzak egoteagatik planeamenduan. Eta horren guztioren azpitik, duela hamarkada batetik higiezinen merkatuak bizi duen egoera lego ke, etxebizitzen eraikuntza geldirik daukana; eta ondorioz, esandako arrazoiengatik, baita horri lotutako urbanizazioena ere.

Bere garaian eremuaren urbanizazioaren zati bat hiru fasetan egitea erabaki zen urbanizazio lanak eraikuntzakoekin bateragarri egiten saiatzeo, eta horrela, I, II, III.A eta III.B faseak jaso eta onartu dira. Fase horiek exekutatuta urbanizazio osoaren % 89,14a egin da.

Exekutatzeko gelditzen den urbanizazioa, % 10,86a, lehen esan bezala dago; eta exekutatzu gero, E, F, G, H, I, J eta K azpilurzatiako egoitzia sustapenen garapenek eragin diezaiokete.

2017ko maiatzaren 15eko sarrera duen idazkian, VISESAk kontratua suntsitzea eskatu zuen urbanizazio obren kudeaketaren eta exekuzioaren zatiari dagokionez.

Ziurgabetasun egoeraren aurrean, eta kontuan izanik hamarkada bat pasata VISESAk ezin izan duela erabat bete bere gain hartuta zituen betebeharrok -alde biezi egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik-, eta ezin denez jakin noiz arte iraungo duen egoera horrek, alde biek ez dute beharrezko ikusten kontratuaren indarraldiari eustea eta adostasunez erabaki dute kontratu suntsitzea. Horri gehitu beharra dago exekutatzeko gelditzen den obraren bolumena dela-eta, horren kudeaketa eta exekuzioa Udalak berak hartu dezakeela bere gain eremuaren sustatzaileen kargura eta kontura, enpresa kontratistaren zerbitzuekin jarraitu behar izan gabe.

Kontratua 2006ko urtarrilaren 18an sinatu zen, eta bere prestaketa eta esleipena ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen testu bateginak arautu zituen.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen lehenengo xedapen aldakorrak ezarritakoaren arabera, Lege hori indarrean sartu aurretik esleitutako kontratu administratiboak aurreko legediak arautuko ditu horien eraginari, betetzeari eta amaierari dagokionez, kontratuaren aldaketa, iraupena eta luzapenen erregimena barne. Gure kasuan, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen testu bategina da kontratuaren suntsiarazpena arautzen duen araudia.

Administrazio Publikoetako kontratuaren Legeko testu bateginaren 111.d) artikuluak esaten du kontratua suntsiarazteko arrazoia dela Administrazioa eta kontratista ados jartzea, eta lege horren 112.4 artikuluak dio kontratua bi aldeen adostasunez suntsiarazteko, batetik, ezin dela egon kontratua suntsiarazteko moduko inolako arrazoirik, kontratistari egotz dakiokenik, eta, bestetik, interes publikoko arrazoik egon behar direla, hain zuzen, kontratuak bere hartin jarraitzea ez beharrezkoa ez komenigarria izan ez dadin.

Kasu honetan, lehen azaldu den bezala, alde biek ados jarrita kontratua suntsiarazteko baldintza guztiak ematen dira.

VISESAk, Udalaren izenean eta Udalak aginduta, urbanizazio obren exekuzioa kudeatzen egindako jarduerari dagokionez, Udal honetan dago VISESARI egindako ordainketak eta ordaintzeke dauden saldoak justifikatzeko ondorengo kontua:

KONTZEPTUA

ZENBATEKOA BEZ GABE

**VISESAREN ORDAINSARIAK KONTRATUAAREN ARABERA 197.050,00 €**

## VISESAri egindako ordainketak

Faktura zenbakia: C06-00059	22.857,80
Faktura zenbakia: C06-00060	45.715,60
Faktura zenbakia: C06-00061	45.715,60
Faktura zenbakia: C07-00020	23.643,59
Faktura zenbakia: C11-00044	15.393,13
Faktura zenbakia: C11-00027	4.982,25
Guztira	<b>158.307,97 €</b>

**Exekutatutako obra portzentajea** 89,14%

VISESAri daqozkion ordainsariak 175.650,37

**Ordaintzeke daqoen saldoa VISESAren alde** 17.342,4

Kontratutik sortutako betebeharrok egoki betetzeko enpresa kontratistak jarritako bermeari dagokionez, Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen testu bategineko 113. artikuluko 5. atalak honako hau ezartzen du: “Nolanahi ere, eratutako bermea galdu, itzuli edo ezereztea bidezkoa den edo ez adierazteko, berariazko aipamena jaso behar da kontratua suntsiarazteko erabakian”.

2018ko apirilaren 16an entzunaldi tramitea eskaini zitzaion VISESAri Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak, onar zedin, egindako erabaki proposamenari buruz egoki iritzitakoa alega zezan. VISESAk ez du inolako alegaziorik aurkeztu.

Azaldutako egitatezko aurrekariak eta oinarii juridikoak kontuan izanik, eta EH BILDUko 4 zinegotziak (Aitor Zubizarreta, Aintzane Agiriano, Edorta Barandiaran eta Nestor Arana) eta IRABAZIKO zinegotzia (Rafa Bernal) abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta. Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- VISESArekin 2006ko urtarrilaren 18an sinatutako kontratu administratiboa alde biek ados jarrita suntsiaraztea. Kontratu horrek HIE 9 SANTA MARINA eremuko urbanizazioa kudeatu eta exekutatzea zuen helburu.

**Bigarrena.-** VISESAk bere gain hartutako urbanizazioaren kudeaketa eta exekuzioaren betebeharrok betetzerakoan benetan egindako zerbitzuen prezioa 175.650,37 eurotan (BEZ gabe) kitatzea.

**Hirugarrena.-** Emandako zerbitzuengatik VISESAri ordaintzeke gelditzen dena 17.342,4 eurotan (BEZ gabe) finkatzea.

**Laugarrena.-** Kontratutik sortutako betebeharrok betetzeko jarritako abala kitatzeko baimena ematea. Abala 57.289,44 eurokoa da eta KUTXAk eman zuen 2005eko abenduaren 21ean.

#### **10.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEKO UDAL ERREGELAMENDUA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzeko erregelamendu proiektuaren testu artikulatua ikusi da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitako legezko prozedura kontuan hartu da.

Udalak araugintzarako urteko plana du Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluari jarraiki, erregelamendu hau izapidezta aurreikusten duena.

Erregelamendu maila duten arauak egiterakoan herriaren parte hartzea bermatzeko helburuarekin, eta Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (EDL 2015/166690) 133. artikuluan xedatutakoa betez, erregelamendua egin aurretik herri konsulta egin behar da herriaren eta erregelamenduak eragin diezaiekeen erakunde garrantzitsuenen iritzia jasotzeko.

Konsulta hori egin da, eta ez inolako iritzirik jaso.

Erregelamendu proiektuak ez die zuzenean eragiten herriaren legezko eskubideei eta interesei, eta beraz, ez da beharrezkotzat jotzen entzunaldirik eskaintzerik herriarei Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkideari buruzko 133.2 artikuluan aurreikusitako ondoreetarako.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada ez denez beharrezkoa izango Udalbatzarrak beste erabakirik hartza; idazki orokorrak erreklamaziorik edo iradokizunik ez dela egon egiazatzeko ziurtagiria egingo du eta ordura arte hasiera bateko erabakia zena automatikoki behin betiko erabaki bihurtuko da.

Gizarte zerbitzuetako batzorde informatzaileak erabaki proposamenaren aldeko diktamena egin du.

Horiek horrela, eta eztabaидatu eta bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erregelamendua hasiera batean onartzea.

**BIGARRENA.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki oholean eta udal webgunean argitaratzea 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazioak edota iradokizunak aurkeztu ditzaten herritarrek (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikulua).

**HIRUGARRENA.-** Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onartutzat joko da, eta horren ondoreetarako, prozedura amaitzeko eta erregelamendua indarrean sar dadin beharrezko izapideak egiteko aginduko du Alkatetzak.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko onartzeko erabakia, edo, hala badagokio, hasiera bateko onarpenaren erabakia maila horretara automatikoki aldatzekoa, erregelamenduaren testuarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

## **11.- GALDE-ESKEAK.**

### 11.1.- Ur ihesak hornidura sarean.

Rafa Bernalek adierazi du ikasleek aurreko bilkuran eman duten datu batek kezkatu duela: ur hornidura sarean % 40a galtzen dela. Uste du zerbait nahiko azkar egitea eskatzen duen gaia dela, eta bere ustez, hurrengo hirigintza batzordean aztertu beharko litzateke bi arrazoirengatik: errekurso bat galtzea delako eta horrek dakarren gastuaren igoerarengatik.

Alkateak jakinarazi du duela bi urte, 2016an, sarea aztertzen lana egin zela eta ihes asko antzeman zirela, baina, horietatik garrantzitsuenak konponduta daudela. Ikasleek eman dituzten datuak landa lan-azterketa horretan oinarrituta daudela, eta horiek erabili izan direla gero arazoari aurre egiteko. Matxura garrantzitsuenak konpondu ziren eta bigarren fase batean konpontzeko gelditu dira garrantzi txikiagoa daukatenak, baina, baliabide tekniko bereziak eskatzen dituztenak (robot bat erabiltzea), eta horregatik, lana oso koste handikoa egiten dutenak ikuspuntu teknikotik zein ekonomikotik.

Rafak berriz ere esan du gaia aztertzea komeni dela.

Alkateak gehitu du neurriak hartzen ari direla udal zerbitzuetako erabiltaileek ura hobeto erabili dezatela kontrolatzeko, esate baterako, kirolegiko txorrotak aldatzea.

Nestor Aranak berriz azpimarratu du ikasleei ahalik eta azkarren erantzutea komeni dela, hilabeteko epean, Udalak sinesgarritasunik gal ez dezan ikasleen aurrean.

Alkateak esan du Eskola Agendarekin lotuta urtero aurkezten diren projektuetako proposamen guztien deskargua egiten dela: zer egin den eta zer ez den egin; eta kasu horretan, zergatik ez den egin. Deskargu hori hurrengo ikasturte hasieran egiten da, eta esan duenez, hurrengo bilerara Rafa Bernal ere joan beharko da, aztertu beharreko gaietako bat erreka delako eta bera izan errekaren arduraduna Udal honetan.

### 11.2.- Ferixie eguna: Jose Arana kalea.

Aitor Zubizarretak esaten du kalean dabilen kezka bat ekarri nahi duela: Ferixia egunean nola kudeatu behar den trafikoa Jose Arana kalean.

Alkateak jakinarazi du egunero ari direla lanean Ikastolarekin Ferixie antolatzeko, eta nahiz eta kalean kontrakorik esan, Ferixie egingo dela. Hori bai, esan du ez dela betiko moduan egingo, eta hainbat leku aztertzen ari direla non egin erabakitzeko. Trafikoari dagokionez, esan du Arbiñostetik bidaliko direla Gasteizera doazen kotxeak, eta Aretxabaletarantz doazena, Olazarretik; eta horretarako ikastolako ikasleen gurasoen laguntza izango dutela. Era berean, esan du aztertzen ari direla ze autobus zerbitzu ezin den kendu eta, beraz, egun horretan Jose Arana kaletik pasa beharko diren. Berriz ere esan du Ferixie ez dela egingo beste urte batzuetan egin den lekuan.

#### 11.3.- Saihesbidearen itxiera: obren iraupena.

Aitor Zubizarretak esan du Goienan irakurri duela saihesbidea itxita egongo dela ekainaren 27ra arte, eta harrituta dagoela, hasiera batean obrak 3 aste iraungo zutela esan zelako. Galdu du ea ezin den zerbait egin lanak arintzeko, esan duenez, hasiera batean asteburuuetan ere lan egiten baitzuten, eta orain, ez. Kezka agertu du ere San Pedro jaietarako ez badira amaitzen eta trafikoa herrigunetik izaten jarraitu behar badu.

Alkateak erantzun dio eskatzea libre dela, eta eskatzearen Aldundiari eskatu dakiola, astero egiten dela bilera bat obraren jarraipena egiteko; eta egia dela asteburuuetan ez dela lanik egiten, bakarrik lehenengo bietan egin zela larrialdi egoerarengatik. Nabarmendu du obren lehen fasea aurreikusitako epeetan egiten ari dela, eta eguraldiak ez badu eragozten eta ez bada ezustekoren bat gertatzen, ekainaren amaierarako amaituta egongo dela.

#### 11.4.- EH BILDU taldearen eskaera ikasleei egiten zaien deskarguari buruz.

Nestor Aranak eskatu du Eskola Agenda programa barruan uraren inguruau egindako proposamenak direla-eta ikasleekin egingo den deskargu bileran bere taldeak ere parte hartzeko aukera izatea. Alegatzen du lanen aurkezpena ikusi dutenez, gustatuko litzaiekela, ahal den neurrian, Udalak emango dien erantzunean ere parte hartzea.

Alkateak erantzun dio ez duela inolako eragozpenik. Ofizialki Alkateak deitzen duela bilera, baina, normalean mugikortasunarekin lotutako gaiak izaten direnez, Josu izan dela bileretara joan dena. Hurrengo bileran Rafak ere parte hartu beharko lukeela uste du, landu beharreko gaietako bat erreka delako, eta jakinarazi du gonbidapena jasotakoan EH BILDURI ere bidaliko diola.

Rafak hizpidera ekarri du erreka zaintzeko URArekin formalizatutako hitzarmena, eta zalantzan jarri ditu erakunde horrek benetan hartzen dituen konpromisoak gai hotzetan; adierazi du hasiera batean uste bazuen ere Udalak probetxua aterako ahal zuela URAk dituen baliabide pertsonaletatik eta materialetatik eta baita gai horretan izan zezakeen esperientziatik, orain hori guztiori zalantzan jartzen duela, testua zehatz irakurrita badirudielako ia erantzukizun osoa udalen esku gelditzen dela. Erreka garbitzearen kasua aipatu du, URAren arabera, orokorrean, udalaren eskumena dena; URAk bakarrik konpromisoa hartzen duela urak ibilgu libre izateko, eta beraz, bere betebeharra, esaterako, zuhaitz bat eroritakoan hori kentzera edo antzerako egoeretara mugatuko dela edo presa bat kentzeari moduko jardueretara. Aurreratu du egoera

horren aurrean kaleak garbitzeko baldintza agirian errekatik objektu handiak kentzea sartzea planteatuko duela, plastikoak eta antzekoak kentzea zertxobait zailagoa delako, eta baita erreka ondoko guneak egunero garbitzea ere, bertan pilatzen diren paper eta plastikoak errekkara iritsi ez daitezen, esaterako, haizearen eraginez. Erreka hondakinez ez betetzeko egin daitezkeen beste jarduera batzuk ere aipatu ditu, bere garaian planteatuko dituenak.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:05ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión de fecha 24/04/2018.

## **2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 16 de mayo de 2018 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta del acuerdo por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos Nº9/2018.

## **3.- APROBACIÓN DE LA VERSIÓN II DEL ANEXO D-3 del Convenio de Colaboración en materia de cesión recíproca de información suscrito con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

Con fecha 15 de mayo de 2014, este Ayuntamiento y el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa suscribieron un convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información.

El convenio suscrito tiene una serie de anexos; y entre ellos se encuentra el Anexo D-3: suministro de información tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas para el desempeño de funciones en materia de servicios sociales.

A iniciativa de algunos ayuntamientos, desde el Departamento de Hacienda y Finanzas se propone modificar el anterior Anexo D-3 en el siguientes sentido:

- No diferenciar la información del anexo D-3 en dos partes.
- Ampliar la información con datos económicos que no figuran en el actual anexo D-3, pero que resultan determinantes a la hora de determinar la capacidad económica de las personas.

Vista y valorada la propuesta, y de conformidad con el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda y Finanzas, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**Primero:** Formalizar la versión II del anexo D-3 “información fiscal para servicios sociales” que forma parte del catálogo de anexos del Convenio de colaboración en materia de cesión recíproca de información suscrito entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

## **4.- MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES.**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2018, adoptó el acuerdo de actualizar el Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 al objeto de adecuar dicho plan al contenido del Presupuesto del ejercicio 2018.

Aprobada la actualización, se ha visto la conveniencia de modificar una de las previsiones contempladas en su Anexo, con el fin de ampliar el ámbito objetivo de uno de los programas de subvenciones de las diferentes LINEAS ESTRATEGICAS. Dicha modificación consisten en:

AMPLIAR EL COSTE PREVISTO DEL SIGUIENTE PROGRAMA

B) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: Eskoriatzako Kirol Elkartea

